

BALIO - PROPOSAMENA

Gure proiektuak hirietan gero eta ohikoagoa den arazo bati erantzuten dio: aparkalekuen falta. Gaur egun, auto kopurua asko handitu da, eta horregatik gero eta zailagoa da kalean aparkatzea. Aldi berean, garaje pribatu asko hutsik daude, jabeek ez dituztelako erabiltzen edo ez dakitelako nola aprobetxatu. Guk arazo hori ikusi dugu eta irtenbide bat proposatu dugu: garaje horiek plataforma digital baten bidez erabilgarri jartzea.

Plataformaren bidez, erabiltzaileek modu azkar eta errazean aurki dezakete aparkatzeko tokia, euren kokapenetik gertu. Horrela, ez dute denbora galtzen kalean bueltaka, eta aparkatzeko prozesua askoz erosoagoa da.

Proiektuaren beste abantaila garrantzitsu bat da erabilera erraza eta malgua dela. Aplikazioak momentu horretan libre dauden garajeak erakusten ditu, eta erabiltzaileek berehala aukeratu dezakete egokiena. Horrek denbora aurrezteak dakar, eta hori oso garrantzitsua da erabiltzaileentzat. Gainera, prezioak argiak eta bidezkoak dira, ez dago ezusteko gasturik, eta garajeen jabeek diru pixka bat irabazi dezakete euren espazioa alokatuz.

Gure proiektuaren ezaugarri nagusiak bi motatakoak dira. Alde batetik, ezaugarri praktikoak daude, adibidez prezio onak, bilaketa azkarra eta garaje aukera asko. Bestetik, ezaugarri pertsonalak daude, hala nola aplikazioa erabiltzeko erraztasuna, segurtasuna eta konfiantza. Horri esker, plataforma eroso eta fidagarria da.

Azkenik, gure proiektuak hutsune bat betetzen du merkatuan: aparkalekua behar duten pertsonak eta hutsik dauden garajeak elkartzea. Modu honetan, hiriko eguneroko arazo bati irtenbide praktiko eta erabilgarria ematen diogu.



